# Berako Udalaren ordenantza fiskala, Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzien tasak arautzen dituena

**Oinarria:**

1. artikulua. Ordainarazpen hau ezarri da Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Legearen Lehenengo Tituluko IV. kapituluko 7. atalean xedatutakoaren arabera eta lege bereko 12. artikuluan jasotzen den baimenari jarraituz.

**Zergapeko egintza:**

2. artikulua. Zergapeko egintza da zerbitzu tekniko edo administratiboak egitea, arriskutsu gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziak emateko.

**Tasen sortzapena:**

3. artikulua. Arriskugarri gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziak emateko tasa sortuko da eskaera aurkezten den unean, eta lizentzia ez da tramitatuko aldez aurretik tasa hori ordaintzen ez bada.

**Subjektu pasiboak:**

4. artikulua. Ordenantza honetan aipatzen diren lizentziak emateko tasak ordaindu beharko dituzte arriskutsu gerta daitekeen animaliaren baten jabe edo edukitzaile diren guztiek, betiere Udalaren osasunari buruzko ordenantzan Berako udalerrian animaliak edukitzeari buruz egiten den sailkapenaren arabera.

**Tarifak:**

5. artikulua. Kasu bakoitzean aplikatu beharreko tarifak ordenantza honen eranskinean heldu direnak dira.

**Kudeaketa eta dirubilketa arauak.**

6. artikulua. Arriskutsu gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziak emateko tasak, ordenantza honetan aipatzen direnak, Udalaren dirubilketa bulegoan ordaindu beharko dira, Udaletxean baitago, edo udaltzaingoan edo banku bidez ordaintzeko aukeran ematen diren bertzelako bideak erabiliz.

**TARIFEN ERANSKINA**

I. epigrafea_Arriskutsu gerta daitezkeen animaliak edukitzeko lizentziak ematea.

- Tarifa, lizentzia bakoitzeko: 33 euro.